



## 5-13 INAUTERIAK Lasarte-Oria olinpikoa izan zen asteburuan

Bikainak izan dira 2012. urteko inauteriak. Herritar ugari animatu da lotsak etxean utzi eta mozorroa janztera. Jende asko ibili da kalean astebukaeran, bereziki larunbatean, sekulako eguraldia izan baitzuten lagun Lasarte-Oriako Olinpiadek. Goizeko irekiera ekitaldia eta arratsaldeko desfilea oso arrakastatsuak izan ziren. Igandean, euskal inauteriak izan genituen herrian, kaleetan giro bikaina sortuz.

## OHARRA txintxarri.info

Asteazkenean, txintxarri.info web orrialdea zaharraren erabileran arazoak izan ditzakete erabiltzaileak. Izan ere, web orrialde berria martxan jartzeke probak egingo ditugu eta zenbait lotura gaizki ibili daitezke. Hauetako batzuk zorian-agurren eta eskutitzen atala izango dira, beraz, bidali zuen agurren testu, argitaratze data eta argazkiak edo eskutitzak honako helbide elektronikora, [txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com).



Intza K.E. ondo aritu da kadete mailako Euskal Herriko txapelketan.



Aldaz HK bikain aritu zen Soloarteren aurka, garaipen garrantzitsua lortuz.

# Kirolak ez du etenik

Inauteriez gain, hainbat kirol ekitaldi izan dira astebukaeran

**Kirolak ez du atsedunik hartu herrian Inauteri astebukaeran. Besteak beste, areto futboleko Aldaz HK taldeak partida jokatu zuen herriko kiroldegian Soloarte talde bizkaitarraren aurka. Sufrituta, baina irabazi egin zuen azkenean partidua, 1-0eko emaitzarekin. Bestalde, Intza K.E. ere bikain aritu zen Michelingo pilotalekuan jokaturako Euskal Herriko txapelketako ligaxkako azken partiduan. Tamalez, finalurrekoetatik kanpo geratu dira partida erraz irabaztea lortu bazuten ere.**

**A**reto futbola eta pilota izan dira protagonista herrian Inauteri astebukaeran. Aldaz HK eta Intza K.E. bikain aritu ziren euren partidatan eta emaitza onak eskuratu zituzten herriko taldeek euren norgehiagoketan.

**Finalurrekoetatik kanpo**  
Intzako pilotari kadeteak Euskal Herriko txapelketako finalurrekoetatik at geratu dira oso gutxiatik.

Asier Arteaga lasarteoriatarra eta Mikel Aranguren anti-guotarrak osatutako bikoteak nagusitasunez irabazi zuten Markinaren aurka Michelingo pilotalekuan jokaturako partidua, 22-4ko emaitzarekin.

Jose Felix Solano entrenatzaileak aitortu zuenez, partida "zailagoa" izatea espero zuten, aurkari pilotari titularrak falta zitzaizela onartu zuen arren. Gainera, emaitza paregabe honekin Intzako biko-

teak agur esan zion honela Euskal Herriko txapelketari.

## Ligaxkan hirugarren

Bi ligaxka antolatzen dituzte Euskal Herriko txapelketan, eta bakoitzeko bi lehenengok pasatzen dira finalurrekoetara. Intzako pilotarien zoritxarrerako, hirugarren postuarekin konformatu beharko dute.

Hala ere, Solano gustura zen bere mutilek egindako lanarekin: "Pena izan da, Michelinen partidua guztiak irabazi baititugu eta kanpoan jokaturako artean baten bat gehiago irabazi bagenu, finalurrekoetan izango ginatke."

## Aldaz HK bikain

Denboraldi ona egiten ari da herriko areto futboleko taldea.

Horren erakusgarri astebukaeran Soloarte talde basauriarren aurka lortutako garaipena izan zen. Euren helburuei jarraituz, Liga Nazionaleko 3. mailan mantentzeko merituak egiten ari da herriko taldeak.

## Partida borrokaturik

Kostata eta majo sufrituta irabazi zuen 18. jardunaldiko partida Aldaz HK taldeak.

Gol aukera asko eduki bazituzten ere, kamuts ibili ziren lasarteoriatarrek 10 minuturen faltan garaipenaren gola sartzea lortu zuten arte. 1-0eko emaitzarekin amaitu zen partida.

Hortaz, lortutako hiru puntuak oso garrantzitsuak dira taldearentzat, lasaitasuna ematen diolako hurrengo partidei begira.



Donde las estrellas son ellos

**Txakurrentzako ileapaindegia**

**Txakur eta katuen denda**

**TXAKUR ETA KATUENTZAKO JANARIA**

Marka hauek erosten %15eko beherapena



Deskontuak  
beste hainbat produktutan

Ez ezazu ahaztu.  
Gogoratu zaitez berataz






Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610  
Tel.: 943 576313 • [info@canneslasarte.com](mailto:info@canneslasarte.com) • [www.canneslasarte.com](http://www.canneslasarte.com)

**Iruditan**



**1913. urteko inauteriak**

Lasarteoriatar batek utzitako argazki zahar batekin hasiko dugu bitxikeriak argitaratzeko erabiliko dugun txoko hau. Lerro hauen gainean ageri dena 1913. urteko irudia da eta ez badirudi ere, inauterietan ateratako argazkia da. Nahiz eta garai hartan herrian inauteri festarik ez zen antolatzen, baziren Donostiara joaten ziren herritarrak. Hirian ederki ospatzen zuten inauterietako festa, askotan karroza eta guzti ateratzen baitziren elkarte eta lagun taldeak.

**Talaiatik**

**Inauteriak 2012**

Inauteriak ditugu zenbaki honetan jaun ta jabe. Olinpiar joko koloretuak izan ditugu aurtengoan gure kaleetan eta ohi bezala, jendea moztu eta festan murgildu da giro aparta sortuz.

Gurera bueltatuz, konturatuko zineten ostiralean kaleratu zela lehenengoz Txintxarri diseinu berriarekin. Aurki sarean izango da gure webgune berria eta aldaketa asko tarteko, guztiak irakurleen gustokoak izatea nahi genuke. Beraz hobekuntza, iritzi edota proposamenak egiten jarraitu beldurrik

gabe. Dagoeneko batzuk jaso ditugu eta eskerrik asko zuen laguntzagatik!

Kaleko kontuetara bueltatuz, puntako gaia izango dugu laster, 2012rako udal aurrekontuen aurkezpena.

Aurreko asteko udalbatzarrean alkateak aurreratu moduan, zirriborroa eginda dago eta honen berri izango dute laster udaleko gainontzeko alderdiek. Ziur diru kontuek eztabaidarako tartea zabalduko dutela eta gurean hainbatetan jaso beharko dugula honen inguruko informazioa, beraz adi!

Bestetik gomendio bat, "Bodolaguak" antzezlan izango dugu ostiralean Manuel Lekuona kultur-etxean. Oholtza gainean Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu aktoreak izango ditugu eta umorea ardatz, euskalduna izatearen burukominen inguruan arituko zaizkigu. Asteburua irripar batekin hasteko aukera paregabea hortaz ostiralean izango duguna.

Aste ona izan!

**Hitz eta pitz**

**Mozorrotzen al zara inauterietan?**



**Miren eta Manoli Zumeta**  
Betidanik mozturatu izan gara. Karnabaletan ondo pasatzen dugu, baina horiek preparatzen hobeto. Gu ez gara Tolosara edo Donostiara joaten, herrian ibiltzen gara. Behin edo behin joan gara, baina oso gutxitan. Askotan moztorra simplea da, baina sortzen den giroa, ederra. Ondo pasatzeko nahikoa da peluka bat janztea, itxura aldatzeko.



**Joseba Lacalle**  
Aurten prestatu egin dut, baina normalean azken orduan inprobisatzen dugu. Herrian ateratzen naiz, Donostian ez dago ezer eta. Ikasleak ginenean Tolosara ere joaten ginen. Giroa ona egoten da. Astearte gauean agian Altsasura joateko asmoa dugu, bertako inauteri "esoterikoak", akerra eta sorginak, ikustera. Asteazkenean jai hartu behar.



**Clemem Clemente**  
Ezkongabea nintzela joaten nintzen Tolosa ala Donostiara senargaiarekin. Irunera ere bai. Tolosakoak asko gustatzen zaizkit, Donostiakoak baino gehiago. Behin mozturatu nintzen, eskale moduan, baina duela 42 urte ezkondu nintzen eta aurretik zen hori. Orain Lasartekoak ikusten ditut, baina ez daukat umorerik, eta ez naiz mozturrotzen



**Nagore Urdangarin**  
Asko gustatzen zaizkit karnabalak, odolean daramat, Tolosan jaioa naiz eta. Urtero joaten nintzen, txikitatik, baina azken urteotan, tabernan lanean hasi nintzenetik, ez. Tolosako inauteriek zer duten? Besteek ez dutena, bizitza. Donostikoak ez zaizkit gustatzen eta hemen, larunbatean giroa egoten da, ondo dago, baina aurtengo gaia ez zait gustatu.



**Tasio Arrizabalaga**

**Inauteriak 2012**

Pozgarria da pasa den asteburu honetan Lasarte-Oria kolorez nola jantzi den ikustea. Pozgarria, bai, festa giroan gure herria gero eta herriago dela ohartzen baikara, bere buruaz gero eta harroago dagoen herri, hain zuzen, eta gero eta urrunago, haratago helduko den herri.

Suak, garrak, Olinpiatik Londone-ranzko bidean, gurean egin du geldialdia aurtengoan. Merezia genuen. Hona ere behin edo behin heldu beharko zen bada! Eta herritarrek,

herri osoak hartu du honen lekukoa. Jaia antolatzen, aurrera eramaten, eta ametsa gauzatzen jakin dugu. Pixkanaka ikasiaz, noski.

Jai eredu berri baten aldeko hautua egin du Lasarte-Oriak. Jai horretan bertan protagonista garen herritarren indarraren eta inplikazioaren alde egin du, eta gure parte-hartzea, ekimen ororen muin dela ulertu du.

Emaitzak nabariak dira. Inauteriak gero eta sendoago, indartsuago bizi ditugu urtez-urte. Gero eta gehiago

dira ideia xeble bat gauzatzeko sekulako esforzuak egin ostean, herrian geratu eta festaren parte aktibo izatea erabakitzen dutenak. Txaloga-rria da benetan ilusioz osatutako proiektua gauzatu dela ikustea. Urrezko domina emateko modukoa.

Pasa dira bada, 2012. urte honetako Inauteriak (baten-batek oraindik gozatzeko betarik izango badu ere). Moztorroak erantzeko garaia heldu zaigu jadanik. Eta orain, blusak prestazeari ekin beharko diogu.

**Adituak dio**

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**

## ANTZERKIA

# Telebistako aktoreak ostiralean Kultur Etxean

Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk "Bodologoak" bakarrizketa ikuskizuna eskainiko dute ostiralean 20:30etan

**Ezagunak dira telebistan hainbat umore programa eta telesailen parte hartu dutelako bai "Bodologoak" ikuskizuneko Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu, aktore eta testuaren egileak, eta baita Anartz Zuazua zuzendaria ere. Ostiralean arratsaldeko 20:30etan kultur Etxean eskainiko dute "Bodologoak" euren azken lana. Sarrerak on line [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) webgunean erosi daitezke 5 euroan eta harpideen artean bi sarrera bikoitz zozkatuko dira. Leihatilan 6 euro balio dute.**

Zineman, telebistan edo antzokietan denetarikoa lanak egin dituzte aski ezagunak diren Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu aktoreek. Azkena, umorezko antzezlan bat prestatu dute aurten. Gaur egungo hainbat gai jorratuko dituzte euren bakarrizketa eta elkarrizketatan: euskalduna izatearen buruko minak, elizako mundu zoragarria, elkarte gastronomikoak, euskaldunon oporrak, opariak, etxeko animalien arropak edota euskaldunok teknologiarekin dugun hartuema, beti ere, berez, aktore hauek darabilten umore apartarekin zipriztinduak.

"Nork esan zuen euskalduna izatea erreza zela? Eta oporretara joatea mundiala? Zein kristori bururatu zitzaion elkarte gastronomikoak sortzea? Eta Fox Terriarai txubaskeroa jaztea? Galdera hauei eta beste zenbaiteri erantzuteko elkartu dira Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu. Serio hartu nahi dituzte gaiak baina, ezin, barrea, algarra eta umorea darie eta. Dena prest dago. Kasualitatea ordea! Justu emaldia baino lehen ezkontza



Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu.



Sun magoa, Kultur-etxean da larunbatean.

bat izan dute eta funtzioa "bodologo" bihurtuko da. Elegante, zorrotz, petral eta xelebre, baina beti umorez gainezka. Hauxe da "bodologuen" helburua: guk esan eta zuek barre egitea" diote aktoreen antzezlan berriaren aurkezpenean. Ezkontza batetik datoz eta hortik "bodologoak" izenburua.

Txintxeta ekoizpenak prestatu du lana eta Anartz Zuazua da zuzendaria. Brinkola telesailean edota Wazemank, Noaua eta Finlandia saioetan parte hartu dute beste beste Lasa, Pagadi eta Aranburu aktoreek, eta Anartz Zuazua zuzendariak berak ere bai. Beraz, horietan guztietan erakutsi duten umorea ekarriko dute ostiralean kultur etxera. Azken urteotan sarri egin dute lan elkarrekin, baina lehenengo aldiz lan honetan igo dira batera ohol-tza gainera.

## Sun magoa larunbatean

Haurrentzako ikuskizuna eskainiko du larunbatean arratsaldeko 18:00etan kultur etxean Sun magoak. Fantasia, komedia eta musikaz beteriko mundua ekarriko du Gasteiztik. 2011n Espainiako Saria eskuratu zuen magoak, goi mailako magia erakustaldiak eskainiko ditu: Agerpen eta desagerpenak, airean igeri egiten duten pertsonak, eraldatzen sinesgaitzak,...

Sun magoa ikusteko sarreara 3,4 euroren truke eskuratu daiteke leihatilan, eta 3 euroren truke [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) web orrialdean. Gainera webean harpidetuz gero, bi ikuskizunentzako sarreraren zozketan parte hartzeko aukera izango da.

## HITZALDIA

## Familia hartzaileak: hazi, hezi eta bizi tailerra ostegunean Villa Mirentxun

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak, Gipuzkoako Familia Hartzaileen Beroa elkartearen lankidetzarekin, familia-harreraren inguruko hitzaldia eskainiko du: "Hazi, hezi eta bizitzeko aukera bat, HAZI, HEZI, BIZI" izenburuarekin.

Ekitaldia otsailaren 23an izango da, ostegunez, arratsaldeko 19:00etan, Lasarte-Oriako Villa Mirentxuko areto nagusian, Donostia Etorbideko 3.ean. Hitzaldia emango dutenak Beroa elkarteko lehendakari Izaskun Ugarte, familia eta bikote psikologo eta psikoterapeuta Leticia Martín eta familia hartzaile bat izango dira. Informazio gehiagorako, 943 245604 telefonora deitu edo [asociacionberoa@hotmail.com](mailto:asociacionberoa@hotmail.com) helbide elektronikora idatz daiteke.

## TAILERRA

## Berdintasunean hezteko tailerra emakumeen zentro zibikoan

Lasarte-Oriako Udala eta Emakumeen Zentro Zibikoaren lankidetzarekin, AGIPASE elkarteak "Berdintasunean hezteak zer dakarkit eta nola egin dezaket" tailerra burutuko du. Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoan izango da hau, otsailaren 23an, asteazkenean, martxoaren 1ean eta 8an, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Honetan gainera, hausnarketarako tartea izango da berdintasunak gizon-emakumeoi dakarkigunaz eta hezteko garaian generoak duen eraginaz aritzeko. Tailerran parte hartzea irekia eta doakoa da.

## ELKARTASUNA


## Saharar herriarekin elkartasuna azaltzeko kontzentrazioa

Saharar herriarekiko euskal elkarte ezberdinen elkartasunaren koordinazio politikoaren barnean, S.E.A.D.en Aldeko Otsailak 27 Euskal Elkartearen Koordinakundeak Sahararen Aldeko "Piztu Itxaropena" VIII. karabana martxan jarri du. Guztira sei trailer eta bi autobus osatuko dute aurtengo karabana eta Donostiako Zurriolatik, irtengo da otsailaren 18an 10:00etan. Honekin lotuta, otsailaren 27an Saharar nazioa aldarrikatu zuten egunean kontzentrazioa egingo da udal-txarean aurrean 19:30ean. Egun osoan zehar Saharar bandera jarrita egongo da elkartasun ikur moduan.

## ADISKIDETASUNA

## 4.Calçot janarako izena emateko epea zabalik

Laugarren urtez Calçot jana izango da Buruntzazpi elkartearen martxoaren 10ean. Honakoa 13:30etan hasiko da umeentzat eta 14:00etan helduentzat. Bazkariaren prezioa 10 eurokoa izango da haurren kasuan eta helduek berriz 26 euro ordaindu beharko dituzte. Martxoaren 5a izango da izena emateko azken eguna eta Buruntzazpin edo [Katalunyalasarteoria@gmail.com](mailto:Katalunyalasarteoria@gmail.com) helbidean egin daiteke dagoeneko. Haurrentzat begiraleak egongo dira.



# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK  
LIKIDAZIOA !

40 URTE ZUEKIN !

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



**GIMNASTIKA.-**

Lan ona egin zuten LOKEko gimnastek txapelketetan

LOKEko gimnastika atala txapelketetan hasi da eta eskolarte eta amateur mailako txapelketako lehengo saioetan izan ziren otsailaren 11an, larunbata, Uharkape kiroldegian, Arrasaten.

Saileko entrenatzaileek jakitera eman digutenez, jardunaldi honetan kadete mailako taldeak lortu zuen emaitzarik hoberena, bigarren postua.

Ariadne Aguado, Ainara Apeztegia, Maira Millan, Ane Loiarde, Ane Ayestaran eta Alazne Gonzalez gaztek osatzen duten taldeak hiru uzta eta bi pilotekin egin zuen lan saio honetan eta beste hamabi talde izan zituen aurkari.

Kadete mailako banakako gimnastek, berriz, Ariadna Aguado eta Ainara Apeztegiak uztaiarekin egin zuten lan eta bederatzigarren eta hamargarren izan ziren, hurrenez hurren.

Aizpea Arroyo eta Ane Ayestaran jubenilek ere tresna berdina erabili behar izan zuten haien lanetan. Aizpeak bosgarren postuan amiatu zuen lehia eta Anek hamahirugarrenean.

Hauetaz gain, helduen A mailan, Garazi Gomez gazteak bosgarren postua egin zuen.

Entrenatzaileek gogora arazi dutenez, "lehen urtea du Garazik maila honetan. Iza Gipuzkoako txapeldunorde izan zen eta A mailan lehiatuko da orain".

Gauzak honela, LOKEko entrenatzaileak oso pozik daude haien gimnastek lortu zituzten emaitzekin.

**IGERIKETA.-**

# Igerilariak markak hausten jarraitu zuten

Ibarburuk eta Vazquez Gipuzkoako txapeldun orde berriak dira

**Buruntzaldea IKT-ko igerilariak lehengo asteburuan Gipuzkoako Neguko txapelketa izan zuten. Lan on aegin duten taldeko gazteek hiru probetan zilarrezko domina, brontzezko bat eta Espainiako gutxieneko marka berriak lortu baitzituzten. Baina hau ez da guztia izan, asteburu honetan, infantil mailako Euskadiko txapelketa izan baitute.**

**Nerea EIZAGIRRE**

**G**ipuzkoako Neguko txapelketa izan zen lehengo asteburuan, otsailaren 11 eta 12an Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan. Buruntzaldea IKT-ko gazteek asteburu bikaina izan zutelaren jakin arazi digu Borja Apeztegia entrenatzaileak, "denak benetan bikain aritu ziren eta horren erakusle dira lortutako emaitza paregabeak".

**Dominak eta markak**

Taldeko arduradunak azaldu digunez, infantil mailan bakarrik lortu ziren dominak eta Iñigok Ibarburu eta Jone Vazquezek eskuratu zituzten.

Iñigok bi txapeldun orde-tza lortu zituen 200 m. estilo



Jone Vazquez 800 m. libre eta 200 m. libreetako podiumean zilarrezko domina lepoan duela.

BURUNTZALDEA IKT

eta 400 m. libre eta brontzezko domina 200 m. libreetan.

Gainera, azkenengo bi proba hauetan Espainiako txapelketarako marka gutxienekoa egin zuen eta dagoeneko Palma de Mallorcan sei probatan egongo da.

"Sari ederra, maila berean bera baino urte bat zaharragoak direnak sartzen direla eta bere proba onenak ez direla kontuan izanda," aipatu du taldeko entrenatzaileak.

Bestalde, Jone Vazquezek 800 libre proban bigarren postua lortu zuen. "Urte hasieratik hobekuntza handia izan du distantzia honetan," jakin arazi du Apeztegiak.

Hauetaz gain, Haitz Mitxelena aspladitik begiz

jota zuen gutxieneko marka lortu zuen, 200 tximeletakoa.

**Guztiak ongi**

Baina Buruntzaldeako talde kide guztiek ahal zuten guztia eman zuten txapeleketan eta honela 28 marka pertsonalak hautsi zituztela azpimarratu du Borja Apeztegiak.

Aipatzekoak dira, entrenatzailearen ustez, Itsaso Tolosaren emaitzak. Itsasok 8 probatan parte hartu zuen eta horietako seietan bere marka pertsonala hobetu zuen.

Era berean, Mikel Esnalek ere 8 proba egin zituen eta proba indibidualetan 200 m. libre, 50 m. bizkar eta 100 m. estiloetan hobetu zituen markak eta Apeztegiaren hitzetan,

"erreleboetan ere bikain aritu zen".

Hauetaz gain, Kevin Igleziasek 800 m. libre eta 100 m. estiloetan lortu zuen hobekuntza; Garazi Alkorta 100 m. libre, 50 m. tximeleta eta 400 m. libretan eta Mikel Sotok lau marka pertsonal egin zituen.

Azkenik, Naiara Lizasok erreleboetan parte hartu eta Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak azaldu digunez, "bere denborak ofizialak ez diren arren, 50 m. libre eta 100 m. libreetan Espainiako txapelketako gutxienekoetatik gertu ibili zen".

4x100 m. erreleboan ere, mutilek haien marka 9 segundutan hobetzea lortu zuten.

Gozguzko Sak arte irekiaball!



# ABEND

## KAFE-ANTZOKIA

**EGUNEKO MENUA**  
**DANTZA**  
**BOKATAK**  
**KONTZERTUAK**

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089  
LASARTE-ORIA



## Bideo Lagunak



**BEGIRATU  
GURE ESKAINTZAK!**



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



*Inguruko erakusketarik  
onena!*

*Betiko  
zerbitzua  
gure  
aholkularitza  
onenarekin*





Urtero bezala, koloretsua izan zen oso Garaikoetxeako euskal inauteien jaialdia.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gaztetxoek desfile polita egin zuten. Denetarik izan zen, zuzi olimpikoa, banderak, musika...

## Ikastetxeak kolorez jantzita

### Herriko txikienek ostiralean hasi zituzten Inauteriak

Urtero bezala, herriko txikienek kolorez jantzi zituzten ostiralean euren ikastetxeak.

Eguraldia errespetatu egin zituen gaztetxoek eta arratsalde polita igaro zuten euren lagun eta familiakoen aurrean. Mozorroak erakutsiz eta azken asteotan prestatzen ibilitako hainbat ekintza burutuz ederki gozatu zuten.

#### Sasoeta-Zumaburu, kirolari

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-koek Olinpiar Jokoak gaitzat hartuta, hainbat ekitaldi egin zituzten.

Besteak beste, igerilariak, saskibalo jokalariak, korrika-

lariak, tenislariak eta txirridulariak izan ziren Sasoetan prestatutako jaialdian.

Zuzi olimpikoa ere piztu zuten hortarako prestatutako pebeteroan eta argi erakutsi zuten izpiritu olimpikoa oso bizirik dirauela haiengan.

#### Landaberrin desfilea

Landaberrin ere desfile olimpikoa egin zuten ostiralean. Gaztetxoek euren kirolari dohainak erakusteko aukera izan zuten guraso eta lagunaren aurrean.

Hainbat erakustaldi egin zituzten kirolari gaztetxoek. Bertan, aurkezlea aritu zen zere-remonia gidatzen eta beste

gauza batzuen artean, halterofilia, txinatar estilora ping pong-ean jokatzen edota denetarik akrobaziak egin zituzten Landaberriko gazte-  
txoak.

#### Euskal inauteriak

Garaikoetxean berriz, urteroko ohiturari jarraituz, euskal inauteriak ospatu zituzten. Musikaz girotuta, Miel Otxin, Ziripot eta euskal inauteriako beste hainbat pertsonaiekin batera, dantzan eta kantuan aritu ziren Miel Otxin lapurra epaitu eta erre zuten arte. Beste behin ere, kolorez jantzi zuten ostiral mehe eguna.



Izpiritu olimpikoa bizi-biziri dirau gaztetxoengan.



Landaberrin, halterofilia, ping-pong, eta beste hainbat kirol antzeztu zituzten.



Senide eta lagun ugari bildu ziren euren seme-alaben desfileak ikustera. Irudian, Landaberriko gimnasioan egindako desfilea.

Maite

**B**ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliariako zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117





Jendetza bildu zen Okendo plazan olinpiar jokoen hasiera ekitaldia ikustera.



Herrian zehar ibili zen su olinpikoa eta honen jarraitzaileak.



Zakili Beltx eta Zumetarrek hasiera ekitaldiari jarraipena eman zioten.



Su Olinpikoa Okendon piztu zen festari hasiera emanez. Jende ugari bildu zen Okendon eguraldi ona lagun.

## ...eta festa piztu zen!

### Okendora zuzi olinpikoa iristearekin batera eman zitzaien hasiera ofiziala herriko inauteri olinpikoei

Larunbat eguerdian abiatu zen zuzi olinpikoa Okendo plazatik herriko kaleetan zehar ibilbidea egitera. Zuziarekin bat, ibilbidea egin zuten kirolari ugari Montserrat Caballe dotorearen gidaritzapean. Ibilbide honetan gainera zuzi olinpikoa hainbat tabernatan egin zuen geldialdia festaren erreleboa emanaz. Okendo plazara iritsita, zuzia piztu eta eman zitzaion hasiera festari.

#### Maidar AZURMENDI

Inauteriak ofizialki hasi ziren Okendo plazan jarritako zuzi olinpikoa piztearekin batera.

Eguerdian giro aparta sortu zen Okendo plazan. Zuzi olinpikoa bertatik abiatu zen Montserrat Caballek gidatutako desfilean ibilbidea egiteko. Honetan kirolari ugari bildu zen banderadunen eta su olinpikoaren atzetik.

Ibilbide honetan su olinpi-

koak geldialdiak egin zituen hainbat tabernatan: Artizar, Dakara, Ilargi, Kanto, Galicia, Buenetxea, Abend, Yolanda, Insausti eta Avenidan. Hauetan zuziak piztu ziren asteburu osoan zehar su olinpikoa ere bertan egon zedin.

#### Hasiera ofiziala

Okendora bueltan, su olinpikoa piztu eta eman zitzaion hasiera Lasarte-Oriako 2012ko Joko Olinpikoei. Izan ere, Londonerako bidean, herrian izan ditugu asteburu

honetan. Haur zein heldu atera zen mozorrotuta kalera, saskibalo taldeak ikusi ahal izan ziren zaldunak, tenistak, indartsuak, txirridulariak...

#### Herri kirol olinpikoa

Ttakunek antolatuta plazan haurrentzako herri kirolak egon ziren. Bertan aritu ahal izan ziren kirolari trebeak gizon probatan edota txingatan euren indarrak neurtzen.

Bitartean, helduek pintxopoteorako tartea izan zuten. Ahaztu gabe, "Zumetarrek" en gimasia erritmiko taldea eta Zakilibeltxen "afro" taldeen emanaldi umoretsuak.

Eguraldia lagun, jende asko animatu zen festarekin bat egitera eta txarangak animatuta giro apartaz gozatu ahal izan zuten lasarteiariar guztiek.

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

ETORRI GURE DENDARA!



ELEKTRIZITATEA  
ARREGUI



**txintxarri**



**Ttakun**

**Fernández**  
e h u n a k

Nahi edo behar duzun hur-axe aurkituko duzue gurean!



- Era eberdierako depilazioak
- Arpegiko tratamenduak
- Gorpuzteko tratamenduak
- Makilajacak
- Beste hainbat zerbitzu

**MATTE**  
ESTETIKAKO ARETOA

Justin Kalea 1/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Solomoa baratxurilla  
Etxeko Itxarboia  
Oadalka- Solomo ontzulia  
Triptakak- Salfirikak  
Txistorra



**BERTAKO FABRIKAZIOA**  
Loidi Barren Kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451  
Lasarte-Oria

# Denetarikoz mozorroak egon ziren desfile erraldoioan



Zimearrek argi erakutsi zuten oraindik sasoko dueda, gimnasia errimiloz eginez.



Zabalea auzoko lagunek saskibalon taldea sortu zuten.



Getitoki kalea jendez lepo, arrakasta izan zuten desfileak.



Kuadrilategi eta Gazte klubeko lagunek eta primeran pata zuten desfile osoan zehar.



Jaguneko lagunek ere parte hartu zuten desfilean.



Zakiti beltz taldeko lagunek ederki acidu zuten gorputza.



70 hamaradara emanen ginuzten Zentro zibiko eta disko lagunek. Eromatarrak eta mesikarrak etorri ziren Lasarte-Oriara.



**ASEGURUAK**  
**GES**

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- Eixeko aseguruak
- Kotxeak
- Denak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



Pablo Mutiozabal kalea 2 • Tel.: 943 365899 Faxa943 368875 • cristina\_arteaga@ges.es • LASARTE-ORIA

**InmoGes**  
Inmobiliaria



Kale Nagusia 12-3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376662

**VINA del MAR**  
TABERNA-KAETEGIA

**Eiortri gure jaki goxoak probatzera**

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

**kima**  
masaje-Jekua

Goyo Martin  
Xabier Carbayada

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197  
LASARTE-ORIA

**AINHOA TABERNA**  
Razioak  
Pintxoak  
...  
Biotri dastintzen !

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

**i.URRUZOLA**  
**ARBOZTEGIA**

Oria etorbidea 4, behea  
(Erraktxo jate txearren ondoan)  
Tel.: 943 371200 / 610 413131  
LASARTE-ORIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.







Felix Telleriak dantzariak gidatzen zituen bitartean, musikariek festa girotu zuten.



Eguraldi txarra tarteko, Okendo plazako karpan egin zuten goizeko emanaldia.



Urtero bezala, adin guztietako jendea bildu zen euskal dantza koloretsuen inguruan.

*Euskal Inauteriek euriari aurre eginez haien 30. urteurrena ospatu zuten atzo. Lasarte-Oriako Inauteri olinpikoak Miel-Otxinen panpina erretzearekin bat amaitu ziren arratsaldean*



Igande iluntzean panpinaren erreketarekin bukatu ziren aurtengo euskal inauteriak.

**TABERNA**  
**Buenetxea**  
**KAFETEGIA**

KAFE BEREZIAK:  
IRLANDESA  
ESKOZESA  
KAPUTXINOA  
BONBOIA



PROBATU AL DITUZU GURE GOSARIAK?  
TOSTADAK  
KRUASANAK PLANTXAN  
.....

Txokolata  
txurroekin



**Ezkontza ondorengo festa  
luzatu dezakezu gurean.  
Erreserbatu lehenbailehen**

**Pintxo beroetan  
aukera zabala**

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508  
LASARTE-ORIA**





**NARO  
PATXI LARRAÑAGA  
ANA IPARRAGUIRRE**

**Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 372668  
Faxa: 943 370737**





Lasto fardoa gora eta behera ibili zuten Kuadrillategiko neska-mutilek.



31 kiloko harrizarra altxatzen aritu ziren herriko gazteak euren lagunen animo beroen laguntzaz.



Gaztetxoek serio hartu zituzten Olinpiadak.

*Herri kirolak ere izan ziren protagonista gurean. Kuadrillategiko gaztetxoak eta hainbat herritar ikusi genituen harriak jasotzen, txingetan...*

# JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.

## eraikuntzak











- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186

## Tapeo Olinpikoak arrakasta handia izan zuen




Su olinpikoa herriko hainbat tabernetan piztu eta hauetan herritarrek tapeo olinpikoaz gozatzeko aukera izan zen. Poteo garaian, milaka mozzorro desberdin ikusi ahal izan ziren gure herriko kaleetan.

# SANCHO TABERNA

**OGITARTEKOAK**  
**PINTXOAK**  
**PLATER KONBINATUAK**  
**EGUNEKO MENUA**

**KAXUELA,**  
**PINTXO ETA**  
**MORUNOETAN**  
**ESPEZIALIZATUA**

**HITZARTUTAKO**  
**ETA**  
**TALDEENTZAKO**  
**MENUAK**



**Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075**



Batzuek telebista ikusi eta deskantsatzeko erabili zituzten inauteriak.



Lasa eta bere kuadrilak etxea itsasontzi bihurtu zuten!



Trumoi ondoko labaderoan kontzertuak izan ziren. Irudian, Human Disaster.

*Denetik ikusi  
dugu aurtego  
inauterietan!  
Eguraldi ona  
lagun,  
primerako festa  
izan genuen  
herrian*



Karpan Abiba disko-festaz gain, erromeria ere izan zen Amalur taldearekin.



**aldaz**  
hertz klinika · clinica dental

**Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan**  
\* Beste deskontuak eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori. Tratamendu berrietarako eskaintzak 2009/02/01etik 2009/05/01era arte balio du.

RPS: 124/10

Aldaz Hertz Klinikak tratamendu aurreratuena aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziakzioa 18 hilabete arte

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko  
**943 366 377**

Ola kalea,10 San Bartolome, 22  
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870  
www.dentalaldaz.com



# HARATEGIA



# URDATEGIA





Geltoki Kalea 15 behea  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376585



Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 37 04 46



Nagusia 50, behea  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 36 11




## Agenda

Osteguna 23, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Elkarbizitza berezia Buenos Airesen

Okendo Zinema taldearen eskutik, Ostegun zinea atalean "Un cuento chino" komedia dramatikoa ikusgai izango da. Filmak istorio surrealista bat aurkezten du. Roberto pertsona bitxia da. Hogei urte lehenago gertaera gogor batek kolpe handia eman zionetik bakartuta bizi da. Halako batean, Jun ezagutuko du. Jun galduta dago Buenos Airesen. Roberto eta Junen artean harreman bitxia sortuko da, eta elkarbizitzak ere egoera bitxiak sortuko ditu.

Sun Magoaren eskutik. Euskaraz. Sarrera online, 3 euro eta leihatilan, 3,40 euro.

### Bakarrizketa

**DONEGAL TABERNA**

**Osteguna 23, 22:30etan**

Kultur kalea zikloaren barruan, Mario Simancasek bakarrizketa eskainiko du.

### Hitzaldia

**VILLA MIRENTXU**

**Osteguna 23, 19:00etan**

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzu sailak, Gipuzkoako Familia Hartzaileen Beroa elkartearen lankidetzarekin, familia-harreraren inguruko hitzaldia eskainiko du: "Hazi, hezi eta bizitzeko aukera bat, HAZI, HEZI, BIZI".

## Lasarte-Oria Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Astelehena 20, 19:00etan**

Danok Kide elkarteak antolatutako Urpeko Zine Zikloaren hirugarren saioa. Gaztelaniaz. Doan.

**Igandea 26, 17:00etan**

Haurrentzako zinearen barruan, "Alvin y las ardillas 3" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

**Igandea 26, 19:00etan**

Okendo Zinema taldearen eskutik, helduentzako zinea atalean "Un cuento chino" komedia dramatikoa ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

**Astelehena 27a, 19:00etan**

Danok Kide elkarteak antolatutako Urpeko Zine Zikloaren azken saioa. Gaztelaniaz. Doan.



### Musika

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Ostirala 24, 23:30etan**

Wasabi Projekt taldearen eskutik jazz eta funk doinuak entzungo dira.

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**

**Ostirala 24, 00:00etan**

Metalmania eta Dark Code taldeen

metal kontzertua entzuteko aukera. Sarrera 10 euro.

### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Otsailaren bigarren hamabostaldian**

Rudy artistaren margoen erakusketa ikusgai izango da.

### Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 24, 20:30etan**

Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk Bodologuak antzerkia eskainiko dute. Euskaraz. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan, 6 euro.

**Larunbata 25, 18:00etan**

Haurrentzako magia ikuskizuna

### Bestelakoa

**EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA**

**Osteguna 23an, 18:00etan**

AGIPASE elkarteak "Berdintasunean hezteak zer dakarkit eta nola egin dezaket" izenburua duen tailerraren lehenengo saioa egingo du.

## Usurbil Musika

**SUTEGI KULTUR-ETXEA**

**Asteartea 21, 18:00etan**

Usurbilgo Zumarte-Txiki eta Zumarte abesbatzen kontzertu berezia izango da.

## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizako kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 24an, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan.

### Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, otsailaren 24an Lasarte-Oriako Herrira elkarteak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

### Igeriketa ikastaroa

Otsailaren 21etik apirilaren 2ra, erdi eta hasiera mailako helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, 20:30etatik aurrera. Izena emateko azken eguna otsailaren 22a, astezkena da. Ikastaroak 105,70 euro balio du eta kiroldegiko bazkide direnentzat 58,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora dei dezakezue.

### Ehiza txikiko txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteke ehiza txapelketa Buruntza mendiko magaletan burutuko da, otsailaren 25ean, igandean, goizeko 9:00etatik aurrera. Elkarteke bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezakete.

Lehiaketan izena emateko epea irekia dago datorren otsailaren 23 ostegunera bitartean.

### Arrantza baimenak

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, arrantza baimenak berritzeko

epea ireki dela. Baimen hori astearte eta ostegunetan arratsaldeko 19:30etik 20:30era bitartean eskatu ahal izango da elkarteke egoitzan.

### Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela.

Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

MEKANIKAKO  
TAILERRA



DIMETAL S.A.



ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

# SAN JOSE-OLAIZ

• Kamioien txasia konpontzeko

oinarria.

• Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.

Orduetgia: 8:30 - 20:30

• Industriako ibilgailuen konpontketa.



Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

# Jaigi

KAFE-ANTZOKIA



GELTOKI KALEA 4 BEHEA  
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377034


# LUIS CAR

## autobusak



- Españiako eta nazioarteko garraino-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikasitxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



# IZARRA BITXITEGIA



[www.izarrabitxitegia.com](http://www.izarrabitxitegia.com)

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384  
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY<sup>®</sup> A.I.E.

